



4.6. Jarduerak antolatzea

1. Alderdi orokorrak

1.1. Zer hartzen du barruan

Administrazio publikoak hainbat motatako hamaika jarduera antolatzen ditu, baita diruz lagundu ere, besteak beste, topaketa erregionalak, nazioarteko biltzarrak, herriko festak, makrokonzertuak edota mundu mailako ekitaldiak (Joko Olinpiarrek edo erakusketa unibertsalak, esaterako). Aipatutako jarduera bakoitzak berezko ingurumen-dinamika eta arazoak ditu.

Kapitulu honetan, honako hauen antolaketan oinarrituko da ingurumen irizpideak txertatzeko proposamena: mintegiak, tailerrak, bilerak, biltzarrak eta hitzaldiak.

Hala, jaialdiak eta aisia ekitaldiak baztertu egingo dira, baita eraikinak eta hirigintza hobekuntzak egitea dakarten ekitaldiak ere, nahiz eta irizpideetako asko, guztiz edo partzialki, ekitaldi horiei ere aplikatu dakizkiekeen.

Bestalde, aintzat hartu behar da Sektore Publikoko Kontratu Legeak berak kontratu pribatutzat hartzen dituela Herri Administrazioaren sormen edo interpretazio artistikoko eta literarioko ekitaldiak, edota aisialdi, kultura eta kirol zerbitzu izaera duten ikuskizun ekitaldiak¹. Dena den, kontratu pribatuak badira ere, kapitulu honetan aipatutako irizpideetako asko atal edo zeregin zehatzen gainean aplikatu daitezke edota gidatzen har daitezke ekitaldi baten garatzerakoan, horrek sormen artistikoa inola ere oztopatu gabe.

Ekintza mota horren norainokoa azaltzeko adibide bat Sydneyko 2000. urteko Joko Olinpiarren antolaketan dugu. Han, antolatzaileak kirol ikuskizuna eta naturarekiko errespetua bateratzen ahalegindu ziren. Horrelako ekitaldi handi batean bi gauzak uztartzen ziren lehenengo aldian izan zen². Bigarren adibide bat ere bada, horren ezaguna ez den arren, zorrotzagoa izan zena: «Green Goal» kontzeptuaren garapena. Alemaniako 2006ko Munduko Futbol Txapelketarako prestatu zen. Orduan, ekintza-plan zabal bat garatu zen Gobernuaren, FIFArekin, Alemaniako Futbol Elkartearen eta Ingurumenerako Alemaniako Fundazioaren artean. Besteak beste, CO₂-aren balantze neutrala lortu zen. Horretarako hainbat neurri hartu ziren, esaterako zenbait estadio biomasa zentralekin edo panel fotovoltaikoekin hornitzea, edota isurketak konpentsatzea garapen iraunkorreko programei laguntzak emanez³.

¹ Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 20. artikulua. (2007ko urriaren 31koa 261. BOE).

² Hona hemen informazio gehiago: <http://www.environment.gov.au/events/greengames/index.html>

³ Hona hemen informazio gehiago: <http://www.bmu.de>



1.2. Non gaude

Ekitaldiak eta kultura jarduerak antolatzeak administrazio publikoaren aurrekontuan garrantzi handia ez duela dirudien arren, udalei dagokienez, zerbitzuak kontratatzearen barruan partidarik handienetako bat ospakizun eta ekitaldiei dagokiena da. Ekintza horiek modu zentralizatuan kontratatzen ez direnez, baizik eta departamentu bakoitzaren aurrekontu-partiden bitartez, ez diru pisu handirik dutenik, baina guztiak batuz gero garrantzi handia dutela ikus daiteke. Talde horren barruan, aurrekontu zatirik handiena jai-ekitaldietan inbertitzen da (kontzertuak, antzerkia, jaialdiak...), eta neurri txikiagoan lehen adierazitako ekitaldietan (mintegiak, tailerrak, hitzaldiak...).

Horretaz gain, ekitaldien ingurugirotzeak aukera bikaina ematen die ingurumenaren arduradunei administrazioko beste arlo batzuekin lan egiteko, eta haien bitartez, hainbat arlotako enpresa eta pertsonekin lan egiteko, ingurumen iraunkorreko kontzeptuak sustatzeko eta ingurumenarekiko errespetu handiagoa adierazten duten jarduerak sustatzeko.

Klima aldaketak sortutako ondorioei aurre egiteko martxan dauden programen gaurkotasunak biltzar, hitzaldi edo antzekoren batetik sortutako ingurumen eragin handietako batekiko interesa piztu du: parte-hartzaileen joan-etorriek eta bidaiek eragindako CO₂ isurketak. Gero eta ohikoagoa da horrelako ekitaldiak antolatzen dituztenek itunak sinatzea isurketak kontabilizatu eta konpentsatzeko; eta hori, aurrerapauso handia da. Isuriez gain, paperaren, uraren edo elektrizitatearen kontsumoa, edota hondakin kantitate handiak sortzea ere garrantziko alderdiak dira. Beren ekitaldiak ingurugirotu nahi dituzten antolatzaileek aintzat hartu behar dituzte ekitaldia planifikatzean, bai produktuak erostearekin loturiko alderdiei dagokienez, baita bertan garatuko diren zerbitzuak kontratatzeari dagokionez ere.

1.3. Nola jokatu

Ekitaldien ingurugirotzea ez da diseinuan, garapenean eta burutzean sor daitezkeen ingurumen eraginak minimizatzea bakarrik, horrez gain aukera aparta dira iraunkortasunaren kultura sustatzeko, bai inplikaturiko enpresetan bai parte-hartzaileengan.

Ekitaldi bakoitzak ikasteko aukera berria eskaintzen die tartean sarturiko eragile guztiei, eta hortaz, abiapuntu bat izaten da etorkizuneko hobekuntza ekintzentzat. Ingurugirotzea etengabeko prozesua da, urratsez urrats ezarri behar dena. Prozesu horretan funtsezkoa da ekitaldi baten prestakuntzarekin loturiko helburu eta ingurumen ezaugarriak argi eta garbi jakinarazi eta azaltzea, eta horrekin, alderdi guztiak ekarpenak egitera animatzea.

Iraunkortasun-printzipioak ekitaldia diseinatzen hasten denetik hartu behar dira aintzat, eta kontratuen, azpikontratuen eta konpromiso formalen bidez ziurtatu behar dira, lizitazio prozesu guztietan barnean sartuta.

Askotan, jardueraren antolatzaileak denboraz larri ibiltzen dira eta egin beharrekoak pilatzen zaizkie (hornitzaileekin edo azpikontratekin negoziatzea, hotelak aukeratzea, hizlariak baieztatzea, eta abar), hortaz, ohikoak ez diren ingurumeneko alderdiak gainkargatzen hartuko dituzte. Bestalde, antolatzaileek konfiantzazko harremanak izan ohi dituzte zenbait azpikontratatuekin lan jakin batzuetarako. Azpikontrataste horiek beti modu berean lan egite dute ingurumen alderdiak aintzat hartu gabe. Horrek guztiak, ingurumen irizpide osagarriak sartzea galaraziko du. Beraz, ingurumen eraginak aintzat hartzen direla ziurtatzeko, oinarritzakoa da planifikazio fasean eta kontratazioan bertan zenbait irizpide kontuan hartzea.

Ekitaldiak, ingurumen lehentasunak ikusten diren elementutzat hartuta, komunikazio-alderdiak kontuan hartzea eta garatzea eskatzen du. Honako hau da jarraitu beharreko estrategia:

- Hasierako ingurumen ekintza-plan bat ezartzea, helburu zehatzekin eta jarduera bakoitzerako eragileen erantzukizunak zerrendatuko dituen.
- Hasieratik emaitzak behatu eta kontrolatzeko sistema bat zehaztea, aplikatutako neurriak ebaluatuko dituzten adierazleak edukiko dituen.
- Hornitzaile eta azpikontratekin eginiko kontratuetan kontratazio eta erosketa berdeko irizpideak zehaztu eta aplikatzea.
- Langile eta boluntarioentzat prestakuntza programa bereziak eskaintzea.
- Parte-hartzaileen, kontrataturiko enpresen, sustatzaileen eta laguntzaileen artean jardunbide egokiak hedatzea, ekitaldian bertan eta haren ondoren.

Azkeneko puntu hori ez da administrazioaren komunikazio-alderdi soiltzat hartu behar, baizik eta jardueran parte hartu duten enpresentzako, laguntzaileentzako eta sustatzaileentzako atzeraelikadura-sistema positibo moduan. Horrela, etorkizunean ospatuko diren jardueren zerbitzuen barne sartuko dira ekintza horiek eta ingurumen arduradunen tutoretza ez da beharrezkoa izango.





2. Jardunbide egokiak

2.1. Nola antolatu ingurumen neurrien ezarpena

Jarduera bat ospatzeko orduan hainbat lan egiten dira, eta horietako bakoitzean esku har daiteke ingurumenarekiko errespetu handiagoz gauza daitezen.

Ingurumen hobekuntzak, hein handi batean, aurrez zehazturiko baldintzen eta administrazioak ekitaldia diseinatzen ari denean hartzen dituen erabakien mende daude. Beharrezkoa da egon daitezkeen aukerak eta mugak aztertzea eta horien artean egin daitezkeenak hautatzea. Esaterako, hiria, ekitaldi-esparrua eta hotelak jadanik aukeratu badira, gainerako alderdiak bakarrik kontrolatu ahal izango dira, esaterako mugikortasunekoak (hotelak eta esparrua), hedapen eta komunikaziokoak, eta abar, eta beraz, hautatutako hoteletako eta lekuetako energia edota ur kontsumoaren gaineko eragina izugarri murriztuko da.

Hori dela-eta, premiazkoa da aldeztatik erabaki bat hartu behar den bakoitzean (herria, esparrua, aretoak, komunikazio-mekanismoak aukeratzea eta abar) gerta litezkeen ingurumen eraginaren inguruan hausnartzea eta horiek murrizteko neurriak hartzea.

Ingurumen erabakiak hartu ondoren, bakoitza noiz eta nola garatuko den erabaki beharko da: ekitaldiaren aurretik, enpresak kontratatzeke orduan; ekitaldia bitartean, aretoak erabiltzeko orduan; edota ekitaldiaren ostean, txostenak prestatzeko orduan.

2.2. Nola jakin zein diren benetako beharrak: adierazleak

Jarduera antolatzean eta garatzean, etorkizuneko *beharrak* identifikatzearen, jarduerara bertaratuko den lagun kopurua finkatzea funtsezkoa da (50, 100, 2.000 pertsona...), ekitaldiaren neurriak ezarri ahal izateko. Baina hori ez da nahikoa. Ondoren, eta jarduerak egun bat baino gehiago irauten badu, lagun kopurua zenbatekoa izango den ziurtasun osoz jakin beharko da, baita egun batetik bestera bada ere, hainbat zerbitzu eta lekuren neurriak finkatzeko; aretoak, *catering* zerbitzuak, komunikazio-materialaren aleak, autobus-eserlekuak, eta abar.

Premiak gero eta hobeto ezagutu, orduan eta baliabide natural eta ekonomiko gehiago aurretiko dira hitzaldi, kongresu edota mintegiak antolatzerakoan.

Adierazleei dagokienez, ingurumen irizpideekin egingo den moduan, lizitazio prozesua baino lehenago definituko dira, izan ere, kontratatutako edo azpikontratutako enpresari adierazleak kalkulatzeko beharrezkoa den informazioa eskatuko zaio, horrela, lizitazioaren ondoren informazio hori lortzeko egin beharreko esfortzua saihestuko baita.

Zer ebaluatuko den erabaki denean, baldintza-pleguan edo kontratuan zera bildu beharko da, kontratistak behar duen informazioa jasoko duela, zuzenean edo azpikontratisten bitartez. Horretaz gain, ingurumen irizpideen kontrolerako eta garapenerako adierazleak beraiek kalkulatu dituztela zehaztu beharko da, baita ingurumen neurriak aurrera eramateko orduan sortutako arazoaren eta lotutako bestelako alderdien informazioa ere.

Honako hauek dira kalkulatu litezkeen adierazle batzuk:

- Partaide bakoitzak sortutako CO₂ isuri-maila. Horren barruan sartuko dira parte-hartzaileek ekitaldiaren edo jardueraren paraleloan lekuetara eginiko joan-etorriek eragindakoak, baita eremuan erabili diren aretoek eragindako isurketak eta abar, eta horietatik zenbat konpentsatu den.
- Partaide bakoitzak sortutako hondakin kantitatea: botatutako dokumentazioa, publizitate-erakustokiak, *catering*aren soberakinak.

- *Catering* zerbitzuak banatutako produktu organikoen kantitatea edota hizlariei zein pertsona ospetsuren bati oparitutakoa.

17. KASUA: Iraunkortasunerako Herritarren Konpromisoaren sinatzaileak

2005eko Iraunkortasunerako Herritarren Konpromisoaren sinatzaileen konbentzioan (Bartzelonako Agenda 21), Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko talde batek Bartzelonako Udalarekin batera jardueraren ingurugirotze-estrategia garatu zuen. Estrategia horretan, ingurumen-adierazle zehatzak definitu ziren eta horiek kalkulatzeko informazioa ekitaldia gauzatu bitartean bildu zen. Honako hauek izan ziren adierazleetako batzuk:

- Konbentziora iristeko erabilitako garraio motaren pisua (%tan): oinez edo bizikletaz, autoz edo motorrez, autobusez eta trenez edo metroz.
- Lekuarekin, ostalaritzarekin eta garraioarekin erlazionatutako CO₂-aren isurketa maila.

2.3. Zer eta nola kontratatzen dut

Jarduera baten antolaketa hainbat modutan garatu daiteke, administrazioaren baliabideen eta gaitasun teknikoen arabera, urtean antolatzen den jarduera kopuruaren eta, batez ere, horien tamainaren arabera.

Jarduera txikietan, administrazioa antolaketa osoaz arduratu ohi da eta gauza jakin batzuetarako enpresak kontratatzen ditu: inprimaketa, *cateringa* eta abar. Bestalde jarduerarako esparru bat ere kontratatu dezake, leku publiko batean, udaletxean edota egoitzan bertan ospatuko ez bada behintzat.

Jarduera handietan, aldiz, jarduerak kudeatzen dituen enpresa bat kontratatzea da ohikoena (idazkaritza teknikoaren arduraduna). Enpresa horrek egin beharreko lan administratibo eta logistikoak gauzatu ditu, eta administrazioa arduratuko da kontrolaz eta une bakoitzean erabaki egokiak hartzeaz. Enpresa horiez gain, administrazioak beste enpresa edo aholkularitza enpresa bat kontrata dezake idazkaritza zientifikoaz arduratzeko. Enpresa horrek programa eta edukiak garatu ditu, hizlariak hautatu ditu, horiekin harremanetan jarriko da eta haiek bertaratuko direla ziurtatuko du.

Administrazioan jarduerak antolatzea ohikoena ez denez (departamentu berean ez, behintzat), jarduera bakoitzean kontratazio prozesu desberdin bat eramaten da. Prozesu hori zuzena izan ohi da idazkaritza zientifikorako eta zuzena edo itundua idazkaritza teknikorako. Beste aukera bat ere badago: prozedura irekia egitea ekitaldia handia bada, edo enpresa bat homologatu nahi bada administrazioak denbora-tarte jakin batean egitea aurreikusi duen ekitaldi guztiak antolatzeko.

Lizitazio prozesua eta kontratuaren epea alde batera utzita, funtsezkoa da, hasieratik, idazkaritza teknikoak zein hark ekitaldirako kontratatuko edo azpikontratatu dituen enpresek (*catering* enpresak, hotelak, batzar-aretoak, eta abar) jarraituko dituzten ingurumen irizpideak ezartzea.

Enpresa bat baino gehiago kontratatuko bada, prozesu bakoitzean kontratazioarako ingurumen irizpideak zehaztuko dira. Kudeaketa zein azpikontratazio guztietarako enpresa bakarra kontratatzekotan, bere kontratazioarako baldintza-pleguan beste enpresak azpikontratatzeko jarraitu beharreko parametroak zehaztuko dira (eginbarrei eta zehaztapenei dagokienez).



3. Kontuan hartu beharreko ingurumen eta teknika alderdiak

Ekitaldietan ingurumen iraunkortasuna sustatzeko jardun eremuak honako hauetan antola daitezke.

3.1. Ekitaldia egingo den herria hautatzea

Ekitaldi baten ingurumen eraginik handienak, oro har, parte-hartzaileek beren bizitokitatik ekitaldia egingo deneko hirira egiten dituzten joan-etorrien ondorioz sortzen dira, batez ere herrialde mailako edo nazioarteko ekitaldia bada. Bidaiek sortzen duten CO₂-aren isurketa kantitatea murrizteko, lehenik, bideokonferentzia-sistemaren aukera baloratu behar da partaide guztiak edo zenbateko bat bertaratu ez dadin.

Herria hautatzerakoan, jadanik hautatu ez badute, behintzat, inguruko hirietatik zein atzeritik zuzenean iristeko moduak edo bideak (trenak, autobusak edo hegazkinak) edukitzeari lehentasuna emango zaio.

Isurketak murriztea sustatzeaz gain, neutritasun klimatikoaren kontzeptua ere hedatuko da. Kontzeptu hori mugikortasunaren eremuan aplikatuz gero, horrela ulertuko da: CO₂ sortzeari laguntzen dioten eta ekitaldiarekin loturik dauden joan-etorri guztiak «neutraliza» daitezela. Neutralizazio hori gauzatu ahal izateko konpentsazio neurriak ezartzen dira, eskualdean bertan edo garapen bidean dauden herrialdeetan energia berriztagarrien instalazioekin edo zuhaitzak landatzearekin loturiko proiektuak babesten dituzten erakundeekin eginiko akordioekin bitartez, edo CO₂ isurien ziurtagiriak erostearen bitartez.

EAEn Ekopass dago, irabazi-asmorik gabeko Elkarte horren oinarrizko helburua Berotegi Eftektuko Gasen isurien kantitatea murrizteko ekintzak martxan jartzea da. Ekopassek isurien konpentsazio zerbitzua eskaintzen du, horrela, funtsak biltzen ditu energia berriztagarrietako, eraginkortasun energetikoko eta karbono-hustutegietako proiektuetara bideratzeko.

Partaideak motibatu eta beren joan-etorriek eragindako CO₂ isurketak konpentsatzea errazteko, zerbitzu hori ekitaldiaren esparruan bertan eskaini daiteke, ekitaldiaren web orriaren bitartez edo komunikazio elementu guztietan informatuz. Era berean, jardueraren antolatzaileek hizlarien isuriak konpentsatzeko sistema bat ezarri beharko dute: bai hizlarietara beraiei ordaintzeko eskatuz bai antolaketa gastutzat hartuz.

Jarduera klimarekiko neutroa izatea nahi bada, ez dira soilik joan-etorriekin loturiko CO₂ isurketak aintzat hartuko, esparruan, hoteletan, *catering*ean, bestelako joan-etorrietan eta jarduera paralelotan egindako energia kontsumoaren ondorioz sortutako isuriak ere kontuan hartuko dira.

Herria hautatzeko orduan aintzat hartuko den beste irizpide paralelo bat herriak garapen iraunkorarekin duen konpromisoa izango da (Aalborg-eko gutuna, Tokiko Agenda 21...) eta esfortzu hori saritzeko ezartzen dituen neurriak.

3.2. Ekitaldirako esparrua eta partaideentzako hotela aukeratzea

Ekitaldirako esparrua eta hotelak aukeratzeak ia alderdi guztietan eragiten du ingurumenaren ikuspuntutik: mugikortasuna, energia- eta ur-kontsumoa, hondakinen kudeaketa, *catering* eta garbiketa zerbitzuak, eta abar.

Alderdi horien guztien gainean eraginak murriztearren, honako ezaugarriak betetzen dituzten esparruak eta hotelak hautatzea da konponbiderik azkarrena:

- batzuk besteengandik gertu egotea, edo garraiobide publikoaren bitartez, bizikletaz edo oinez erraz iristeko moduan egotea.
- Ingurumena kudeatzeko sistemaren (SGA-IKUS) bat edukitzea, EMAS, ISO 14 001 edo Ekoscan sistemak esaterako, edo ingurumena hobetzeko neurriak aplikatzen dituztela erakutsi ahal izatea.

Gainera, lekuak eta aretoak hautatzean, lehentasuna izango dute argi naturala dutenak, baita klimatizazioaren eta argiztapenaren kontrol individualizatua eta informatika ekipoak dauzkatena ere (ordenagailu eramangarriak, pantailak, proiektagailuak...), energiari dagokionez eraginkorrek direnak.

18. KASUA: FICOPA Fundazio



FICOPA fundazioak (Gipuzkoako Erakustazokaren kudeatzailea) bere ingurumenaren gaineko eragina murriztu nahian, CO₂ isurketak gutxituko ditu: Alde batetik, eraginkortasun energetikoko neurriak eta energia aurrezteko neurriak ezarriko ditu, eta bestetik, bere jarduerari lotutako CO₂ isurketa guztiak konpentsatuko ditu (elektrizitatea, gasa, garraioa, eta abar) EKOPASSen bitartez.

FICOPAK bere gain hartzen du berak eragindako zuzeneko isurketen erantzukizuna eta FICOPAZ kanpoko eragile guztiek –bere ekitaldiak antolatu edo haietan parte hartzen dutenak– eragindakoena. Azken helburua FICOPAN antolatzen diren jarduera guztiak CO₂-ari dagokionez neutroak izan daitezen lortzea da.

Horretaz gain, FICOPAK bere erakustazokan ekintzak egiten dituzten kanpoko antolatzaileei eraikina erabiltzearen ondorioz zein partaideen joan-etorrien ondorioz sortutako isurketen konpentsazioa bere gain hartzea eskaintzen die. Horren truke, antolatzaileak bere ekintzen sustapenez baliatu ahal izango dira, hainbat kanaletan neurri horren logotipoa erabiliz.

3.3. Bestelako mugikortasun neurriak

Arestian herria, esparrua eta hotelak hautatzeko adierazi diren irizpideak jarraituz gero, jarduerara bertaratuko diren partaideen garraioari eta mugikortasunari lotutako eraginak hein handi batean gutxitu daitezke.

Nolanahi ere, garraio publikoan joateko aukera izateak ez du bermatzen hori erabiltzea. Ibilgailu pribatuaren edo taxiaren erabilera saihesteko aukera alternatiboak eskaini nahi badira, bi zentzutan zenbait neurri hartzea beharrezkoa da:

- Garraio publikoa eta bizikleta erabiltzea edo oinez mugitzea ahalik eta gehien bultzatzea hainbat neurriren bitartez, esaterako autobus transbordadoreak antolatuta, garraio publikoaren geltokiak edo oinezko ibilbideak modu argian seinaleztatuta hedapen materialetan, bizikletak alokatzeko zerbitzua ezarrita, eta abar.



- Ibilgailu pribatua ez erabiltzea bultzatuz esparrura iristeko mugak jartzen edota jardueraren inguruetan abiadura-mugak ezartzen, adibidez.

Transbordadore zerbitzuetarako edo beste garraio batzuetarako garraio enpresaren bat kontratatzen bada, haren ibilgailuen ingurumen kalitatea aintzat hartu beharko litzateke, baita ingurumenarekiko dituen jardunbide arduratsuak.

19. KASUA: CONAMA 8

CONAMA 8ren (Ingurumenaren Kongresu Nazionala) antolatzaileek bertaratu ziren guztien esku jarri zuten bizikletak aparkatu eta alokatzeko zerbitzu bat bil-tzar-jauregian bertan.

3.4. Catering zerbitzua kontratatzea

Zerbitzu horrek aperitiboan zein otorduen hornitzearekin lotutako alderdi guztiak biltzen ditu: kafea hartzeko etenaldiak, bazkariak, afariak, harrerak, eta abar. Horretaz gain, prestatu eta zerbitzatu diren produktuen erosketa, horretarako erabiliko diren prozesuak eta makineria, baxerak, beirateria eta mahai-zapiak eta sortutako hondakinen kudeaketa ere zerbitzu horren barnean egongo dira.

Ekitaldietarako *catering* zerbitzuen eraginak murrizteko asmoz, eta ekintza zehatz baterako kontratatzen direla kontuan hartuz, honelako eremuei emango diegu arreta:

- Elikagaien ekoizpenaren eraginak. Europako ikerketa baten arabera⁴ kontsumo europarrak ingurumenaren gainean duen eragina aztertzen duena, nekazaritza eta elikagaien industria (haragiarena eta esnekia bereziki) dira kontsumo osoak ingurumenaren eraginaren % 20-30en erantzule. Gauzak horrela, eragin horiek gutxitzearen produktu ekologikoak, sasoiak eta freskoak erostea sustatuko da.
- Hondakinen bolumena, ontziena zein erabili eta botatzeko materialarena (plastiko-zko edalontziak, paperezko ezpainzapiak, eta abar) eta haien kudeaketa. Bolumena gutxitzeko honako hau bermatu beharko da: berrerabili daitezkeen baxerak eta mahai-zapiak erabiltzea; Produktuak ingurumenerako onuragarriagoak diren ontzi itzulgarrietan (beirazkoak, paperezkoak edo kartoizkoak adibidez) banatzea; eta ahal den neurrian, banakako ontziak erabiltzea saihestea. Gainera, zerbitzuak sortutako hondakin guztien gaikako bilketa egin beharko da.

20. KASUA: Donostiako Udala

2003an, Donostiako Udalak tokiko catering enpresa bat kontratatu zuen, Gureak Ostalaritza, Tokiko Agenda 21eko Udal-batzordeko bileran aritzeko.

Eskainitako produktu guztiak nekazaritza ekologikotik zetozen eta kafeak bi-dezko merkatarizatit.

⁴ Produktuen ingurumenaren gaineko eragina (EIPRO).Bizi-zikloaren ingurumen eraginaren azterketa EB-25en azken kontsumoari dagokionez.IPTS/ESTO proiektua. 2006ko maiatza.

3.5. Hedapen eta komunikazio materialak eta eginbeharrak

Komunikazio estrategiaren diseinuak ingurumenean eragin handiagoa ala txikiagoa izan dezake, horretarako aukeratzen diren kanalen eta euskarrien arabera.

Horrela definituko dugu komunikazioa: ekitaldiko antolatzaileen, hizlarien eta partaideen artean gertatzen den edozein *informazio* truke. Horretarako iragarkiak, gonbit-txartelak, programak, izena emateko inprimakiak, posterrak eta abar argitaratzen dira, paperezko euskarrian eta koloretan.

Jarduerahorrek hainbat eragin dituzte paper-ekoizpenarekin, inprimatze prozesuekin eta materialaren bidalketa eta banaketarekin loturikoak. Eragin horiek murrizteko modurik azkarrena paper bidezko komunikazioa guztiz desagerraraztea da, eta web eta posta elektronikoko bidezkoagatik ordeztzea, teknologia mota horiek erabat indarrean baitaude. Nolanahi ere, pertsona-talde jakin batentzat paperezko kopiak egitea erabakitzen bada, papera aukeratzekoan, amaierako diseinuan eta inprimatzean ingurumen irizpideak kontuan hartu beharko dira, eta halaber, helbide zerrenda eguneratuta egongo da alferrikako bidalketak ez egiteko.

21. KASUA: 2007 Klimaren Aldaketari buruzko Nazioarteko Konferentzia

2007an Bilbon eginiko Klimaren Aldaketari buruzko Nazioarteko Konferentzian (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak antolatua), partaideekin izandako komunikazio gehiena konferentziak sortutako web orriaren bidez egin zen.

Argitaratutako material guztiak %100ean birziklatutako paperean inprimatu zen, Ekoscan Ingurumena Kudeatzeko Sistemak ziurtatutako inprimategi batean.

Beste komunikazio baliabide bat hizlari eta partaideentzako *txostenak* dira. Komunikazio teknologiak era orokorrean ezarri ez ziren arte, partaideek jasotzen zuten dokumentazio guztia inprimatu egiten zen (programak, txostenak, eta abar), eta horrela paper kantitate handia kontsumitzen zen. Gaur egun, ez da beharrezkoa dokumentazio hori guztia entregatzea, informazioa Internet bidez bana baitaiteke. Ekitaldi handietan, batez ere, zeinetan zenbait sesiok ez duten interesik pizten partaideengan, inprimatutako dokumentazioa hondakin kantitate izugarria bilakatzen da. Horregatik, nahiago izaten da ahalik eta material gutxien banatu, eta interesgarriak iruditu zaizkien hitzaldien deskargatzea partaideen esku utzi.

Txostenak banatzea premiazkoa den baloratu beharko da, eta horrela bada, txostenok ingurumen irizpideak bete beharko dituzte.

Bestalde, hizlariak eta pertsonaia ezagunek *opariak* jaso ohi dituzte jarduerara bertaratzeagatik. Horretan ere, ingurumenaren ikuspuntutik, banatzearen beharra baloratu beharko da, eta banatzea erabakitzen bada, ingurumen irizpideak kontuan hartu beharko dira. Artikulu horiek balio sozial erantsia izan dezaketela aintzat hartzekoa da. Izan ere, balio solidarioko jarduera kulturaletan nahiko arrunta izaten da gizarte ekonomiako artikuluak eta zerbitzuak erabiltzea. Hori ez da ingurumen irizpideak sartzeko oztopotzat hartu behar, kasu askotan osagarriak baitira.



22. KASUA: Ecoprocura 2006

ICLEIk —Iraunkortasunerako Udal Gobernuak— antolaturiko Ecoprocura 2006 nazioarteko konferentzian, partaideei banatutako dokumentazioa berrerabilitako publizitate-banderatxoez egindako poltsen barruan aurki zitekeen. Poltsa horiek gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak egin zituzten eta gizarte ekonomiako ekimen batek ematen die lana pertsona horiei.

Azkenik, esparrua eta inguruak *dekoratzeko eta seinaleztatzeko* orduan ere ingurumen irizpideak aplikatuko dira. Horiek, beharrezkoak direnean bakarrik erabiliko dira, eta aukeraturiko diseinuak neutroak izango dira berriz ere erabil ahal izan daitezen, bai administrazioaren aldetik, bai idazkaritza teknikoaz arduratzen den enpresaren aldetik.

3.6. Prestakuntza eta informazioa

Aldaketa prozesu guztietan gertatu ohi den bezala eta lan egiteko era berriak ezartzen direnean, langileen prestakuntza ezinbestekoa da, beren eginkizunak ingurumenari dagokionez modu egokian bete ditzaten eta benetako ingurumen hobekuntzak lor daitezen. Honako talde hauek prestakuntza egitea komenigarria litzateke:

- Laguntzaileak eta boluntarioak.
- Aretoetako teknikariak, mantentze-lanetakoak eta klimatizaziokoak.
- Catering zerbitzuko langileak.
- Garbiketa zerbitzuko langileak.
- Autobus-gidariak.
- Erakustokietako arduradunak eta beste informazio guneetakoak.

Prestakuntzak ez du zertan luzea izan, ekitaldian talde bakoitzak garatuko dituen eginkizunak azaltzearekin aski zango da.

Partaideek ingurugirotzaren esfortzuen eta ondorioen berri ere izan beharko dute. Ingurumen mezuak definituko dira eta hainbat komunikazio kanalen bidez helaraziko dira:

- Web orria.
- Gonbit-txartelak, programa edo partaideen txostena.
- Zeremonilariak emandako mezuak.
- Atondoa eta harrera-lekua.
- Atsedeen hartzeko eremua eta catering-mahaiak.

4. Ingurumen ziurtagiriak

Ekitaldi baten antolakuntzan, zerbitzuak kontratatzen dira produktuak baino gehiago, hortaz, Ingurumena Kudeatzeko Sistema (SGA-IKUS) deritzogun ingurumen ziurtagiriaz balia gaitzke zerbitzua emateko orduan eragin gutxien sortzen duen enpresa identifikatzeko, ziurtagiri horiek enpresa horiei ematen zaizkie eta. Irizpide hori idazkaritza teknikoa, esparrua, hotelak, garraio enpresak, catering zerbitzua, garbiketa zerbitzua, inprimategia eta abar aukeratzeko orduan aplikatuko da.

IKUS nagusiak honako hauen arabera arautzen dira:

**EUROPAKO EMAS
ERREGELAMENDUA**



EKOSCAN ARAUA



**ISO 14001
NAZIOARTEKO ARAUA**



(*) Kudeaketa sistema honetarako ipinitako logoa erlazionatutako araua egin duen organo arduradunari dagokio, ziurtatzen duen enpresa bakoitzak bere etiketa espezifikoak baitu.

Prozesu negoziatuetan edota zuzeneko kontratazioan, administrazioak aurrehautaketa bat egin ohi du, horrela, zerbitzua betetzeko IKUSdun enpresei lehentasuna eman diezaike. Enpresa horiek, ingurumenari dagokionez, gutxieneko maila batzuk bermatzen dituzte, eta kontratua betetzeko momentuan ingurumen irizpideak ezartzeko prest egongo dira eta jarrera hobeagoa agertuko dute ziurrenik. Prozedura irekietan IKUSak ez dira esleipenerako irizpide moduan erabiliko, zenbait kasutan, ordea, kaudimen irizpide moduan erabil daitezke (ikus 2. kapitulua lege esparrua).

Aurreko kapituluetan aipatu dugun bezala, zenbait produkturen ingurumen kalitatea egiaztatzeke, zuzeneko erosketara egiteko edota eskaintzen ebaluazioa egiteko ekoetiketak eta beste-lako ziurtagiriak daude. Ekitaldiak antolatzearekin lotutako lanetan honako ekoetiketa hauek aurki ditzakegu:

- *Inprimatze eta kopisteria zerbitzua*, ikus ziurtagiriak paperaren fitxan.
- *Kopisteria zerbitzua eta esparruaren hautaketa* (informatika ekipamendua), ikus aparatuen ziurtagiriak informatika ekipamenduen fitxan.
- *Garbiketa zerbitzua*, ikus produktuen ekoetiketak garbiketa zerbitzuen fitxan.
- *Catering zerbitzua*, etiketak paperezko produktuetan (oihalezko ezpainzapiak erabiltzen ez badira) eta elikagaietan aplikatuko dira.

Paper birziklaturako Aingeru Urdina ekoetiketa alemaniarra erabiltzen da nagusiki.

Elikagaietarako nekazaritza ekologikoko ziurtagiri nagusienak⁵ honako hauek dira⁶:

EUROPAKO LOGOTIPO ESTANDARRA



**EUSKADIKO NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
ARAUTZEKO KONTSEILUAREN LOGOTIPOA**



⁵ Ziurtagiri horien gidalerroak 2092/91 Europako Araudian (EEE) ezarri ziren eta 1804/1999 Araudiak (EE) zabaldu zituen. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, ekoizpen organikoari eta produktu organikoaren etiketatzeari buruzko 834/2007 Araudiak (EE) ordeztu eta zabaldu zuen.

⁶ Produktuetan ager daitezkeen nekazaritza ekologikoko beste logotipo batzuk ikusteko IHOBEn «Produktuaren Ingurumen Etiketatzea» argitalpena jo daiteke (www.ihobe.net).



5. Merkatuaren egoera: aukeran dagoen eskaintza

Ekitaldi baten antolaketan diharduten euskal enpresek, ekitaldi guztiaren antolatzaileak direnek zein zerbitzu zehatz bat eskaintzen dutenek, ez dute normalean EAE osoan lan egiten, eskualdean baizik.

Enpresa aniztasuna handia da sektore guztietan: inprimategiak, esparruak eta hotelak, catering eta garbiketa zerbitzuak, eta abar. Honako hauek dira, logistika-enpresen, idazkaritza teknikoen zein beste informazioen arabera, sektorerik sentsibilizatuenak eta ingurumenarekiko errespeturik handiena agertzen dutenak beren jarduerak aurrera eramateko orduan, edo identifikatzen errazena ekimen horien inguruan egiten duten publizitateagatik:

- Azoka-esparruak.
- Hotelak, ekitaldiak egiteko aretoak alokatzea eskain dezaketenak.
- Inprimategiak.
- Garbiketa enpresak.

Gutxien sentsibilizatuak edo gutxien prestatuak dauden enpresak edo beren barne-jardueraz informazioa ematen ohitura gutxien duten enpresak honako hauek dira:

- Diseinu grafikoa.
- Catering zerbitzua.
- Garraio kolektiboa.

Horrek ez du esan nahi beren lanetan arduragabeak direnik ingurumenarekin, bere identifikazioa zailagoa dela baizik. Sektore horietako guztietako enpresen zenbateko handi bat ETEak dira (enpresa txikiak eta ertainak) eta hobetzeko aukera handiagoak eskaintzen dituzte, enpresa handiak baino malguagoak eta moldakorragoak baitira.

Ihoberen web orrian (<http://www.ihobe.net/>) EAEko enpresa-sektore bakoitzean existitzen diren IKUSdun enpresa guztiak aurki daitezke.

Hasieran, ingurumen irizpideak ezartzen zein adierazleak kalkulatzeko datuak biltzen/errazten ohituak ez dauden enpresek zama gehigarritzat hartuko dituzte ekintza horiek, baina hobetzeko aukeratzat hartzea ere posible da. Hori dela-eta, lehendabiziko ekintzetan, enpresei beren ingurumenarekiko jarrera hobetzen lagunduko zaie bilerak, prestakuntza eta abar eskainiz, baita adierazleentzako datuak biltzeko nahikoa baliabide bermatuz ere, denbora eta diru aldetik.

6. Ingurumen irizpideak

Ekitaldi baten antolaketa eta garapena kontratatzeke hainbat eredu dago, eta beraz, zaila egiten da kontratazio irizpide orokorrak ezartzea legu eta prozesu guztietan aplikatzeko.

Horrela, talde honetan, ekintza-eremu bakoitzak ingurugirotzeko aukerez osatutako zerrenda bat jasoko du, aukera horiek modu mailakatuan gehituko direlarik. Neurriak 4 mailatan sailkaturita daude, aplikazio unearen arabera:

- *Diseinua* (D). Ingurumen plana erabakitzen den unean baloratu eta zehaztu beharreko ekintzak dira.
- *Kontratazioa* (K). Kontratazio baldintza-agirietan zehaztu behar direnak edo zuzeneko kontratazioan erabakiak gidatu behar dituztenak dira.
- *Prestaketa* (P). Kontratatzailearen betebeharrekin edo gauzatze klausulekin zehaztu behar diren neurriak dira. Dena den, jarduera baino lehen garatuko dira, haren antolakuntza lanen atal gisa.
- *Gauzatzea* (G). Jardueran aplikatu beharreko neurriak dira. Prestaketa neurriak bezala, baldintza-agirietan zehaztu behar dira enpresa lizitatzailleek ingurumenaren ikuspuntutik zein lan egin behar dituzten jakin dezaten.

Horrez gain, ST hizkiekin (idazkaritza teknikoa) markatu dira jardueraren logistika eta administrazioaz arduratzen den enpresari dagozkion lanak, baita zuzenean administrazioari dagozkionak ere, baldin eta azken hori jardueraren antolaketaz zuzenean arduratzen dena bada.

Irizpide gehienak aurrez hartutako erabakiak edota kontratua betetzeko baldintzak direnez gero, ez dago desberdintasunik prozedura irekiaren artean, prozesu negoziatuaren edota zuzeneko kontratazioaren artean.

Ez dira eskakizun maila desberdinak aurkeztuko ere, izan ere, horiek, lehen aipatu bezala, antolatzailearen interesen zein erabakiak hartzeko aurreko baldintzen menpe egongo dira hein handi batean, baldintza horiek zenbait neurri hasieratik alde batera uztera behar gaitzakete, esaterako esparrua aukeratzeari dagokionez.

Hasierako irizpideak hautatzen laguntzeko, izartxo batekin markatuko dira (*) lortzen zailenak izan daitezkeenak, dela sektorearen sentsibilizazio faltagatik, dela enpresek ingurumen informazioa emateko duten ohitura faltagatik edo dela beren zerbitzuetan proposaturiko ingurumen eskakizunak nola ezarri ez dakitelako⁷.

⁷ Irizpide horiek sektore honetako enprekin egindako elkarriketa foroaren emaitzetatik abiatuta hautatu dira. Antzeko lanetako ezagutza eta eskarmentua ere kontuan hartu dira.